

PLaza

44 ■ Seiurteren onena disko batean

» Martxoaren 31ko Durangoko kontzertuaren zuzeneko grabazioa jaso du taldeak 'Seiurte zuzenean' lanean.

Erortzeko zorian direnen kronika

Gizakiaren aurpegi iluna erakusten duten 12 ipuin bildu ditu Eider Rodríguezek 'Haragia' liburu berrian

ARANTZAZU MUÑOA
Donostia

Pertsonen alderdi iluna azalatu du Eider Rodríguezek *Haragia* (Susa) 12 ipuinez osatutako liburu argitaratu berrian. Lehen ipuinaren izena hartu du liburuak, baina *Haragia* ipuina bat gehiago besterik ez da, eta ez du kode berezirik gordetzen barruan. Alde horretik liburu «klasikoa» dela azaldu du Rodríguezek, ipuinek ez baitute loturarik bata bestearekin: «Lehen ipuinak inongo loturarik gabe egiten ziren. Gaur egun modan dago gai baten inguruan lotzea hainbat ipuin. Nik ez diot horri jarraitu».

Era askotako estatus, ideologia, ingurune eta zaletasunak dituzten pertsonaia bildu ditu Rodríguezek. «Generoari dagokionez, uste dut batez ere emakumezkoak daukela, baina gizonezkoak ere badaude». Ipuin batzuk Euskal Herrian gertatzen dira; beste batzuk, aldiz, atzerrian: Buenos Airesen edo Korsikan, esaterako.

Dena den, istorio guztietan gizakiaren aurpegi iluna erakustea izan du xede, eta pertsonaia konplexuak marraztu ditu egileak, ñabarduretan aberatsak eta ertz askokoak: «Izaki hori okurrentea da, argia eta zorrotza, baina baita zini-koa, gezurtia, maltzurra, bekaiztia ere. Bakardadean gauza harrigarriak pentsatzen ditu, eta beste gizakiekin harremanetan sartzen denean, ideiak, epaiak, irainak, laudorioak arrapaladan datozkio. Baina ez ditu esaten, munstroa litzatekeelako esango balitu, edo gutxitan esaten ditu, eta hala, gizakia zuzena bilakatzen da, egoki eta gris, politikoki polit; alegia, konduktista edo konduzitu».

Liburua aurkezteko hasieratik bertatik psikologia konduktistari egin dio erreferentzia idazleak. Gizakiaren jokamoldea ikuspegi praktikotik jorratzen du psikologia konduktistak: «Ez arima, ez amets, ez super-ni, ez super-ezer ez: praktika». Gizakiak gizakien artean integratzea du helburu konduktismoak. Rodríguezen esanetan psikologia joera horrek, modu batean, gizakiaren dekadentzia adierazten du, gizakia gizakien artean bizitzeko jaio dela, eta ez garai bateko idealistek uste zuten bezala, gizakiak nortasun propioa ga-



Eider Rodríguez *Haragia* ipuin liburuaren aurkezpenean. IMANOL OTECI / ARGAZKI PRESS

ratzeko eta nortasun horrekin bizitzeko eginak direnik: «Bitxia da gaurko psikologia: maskarada batean bizitzera kondenatu nahi gaitu».

«Ez da psikologia liburu. Gizakia adaptatzera bultzatzen duen psikologia baten aurkakoa, akaso, bai»

«Izaki liluragarriak atzeman nituen, izaki dibertigarriak, biziak, disfuntzionalitatean interesgarri zirenak»

EIDER RODRÍGUEZ
IDAZLEA

du inor izutu nahi. Esan dezakegu, akaso, psikologiaren aurkako liburu dela, edo behintzat, gizakia adaptatzera bultzatzen duen psikologia baten kontrakoa».

UMORE PRINTZAK ILUNTASUNEAN. *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004) ipuin liburu amaitu bezain laster hasi zen *Haragia* idazten. Literaturaren ohiko kezka etiko eta estetikoez gain galdera bat egin zion bere buruari idazten hasi baino lehen: nolakoa da gizakia, gauza maltzurak, gauza desagokiak, kanpora ezin daitezkeen gauzak pentsatzen dituenen? «Liluratu egiten nau pertsonaren alde sekretu horrek, sorgindu egiten nau, eta idazketaren bitartez ertz horiek ezagutu nahi izan ditut, pertsona horiek zer pentsatzen duten jakin, zer esaten duten, zer sentitzen duten».

Rodríguezen ustez aurreko ipuin liburuarekin lotura badu *Haragia*-k, idazlea berbera delako, baina uste du oraingoan soilago aritu dela, apalago: «Egitura aldetik eskujoko gutxiago egin dut eta metafora aldetik leunago aritu naiz». Gizakiaren alderdi iluna islatzen gordinki saiatu den arren, badaude liburuan umore printzak ere, pertsonaia dibertigarriak baitira iluntasunean: «Izaki liluragarriak atzeman nituen, izaki dibertigarriak, biziak, haien disfuntzionalitatean interesgarri. Haien motibazioa, maitatzeko eta gorratzeko mobilak bilatzen eta idazten ahalegindu naiz, kontzesiorik egin gabe. Horrela atera dira istorio hauek, txikiak, epikarik gabekoak, kotidianokoak». Ondorioz, Rodríguezek ez du uste liburu iluna atera denik. «Badu argi izar bat».

Afektuari leku berezia egin dio liburuan. Hala, amonarekin lotarriak gehiegi estutu nahi ez dituen gaztea, etxetik ihes egin nahi duten gizon-emakumeak, elikadurarekin harreman gatazkatsua duen telebistako langilea, erakargarri sentitzearren edozer egiteko prest dagoen emakumea, dramarik egin gabe suizidatu nahi duen andrea, katua galdu duen langilea, modernoaren eta baserriaren artean bizitz den neska, gose greba egiten ari den preso, etxez aldatu nahi duen diseinatzailea eta edonorenganako afektua sentitzeko prest dagoen opositoria elkartu ditu, «nahi gabeen». «Afektu behar konpultsiboa dute pertsonaiek batzuetan, besteetan ez dakite zer egin jasotzuetan, zangotraben eraginez besteetan. «Ez ezazue pentsa *Haragia* psikologia liburu denik. Ez

Lauaxeta 2007 saria eman diote Miren Agur Meaberi

ERREDAKZIOA
Bilbo

Ipuingintza, poesia, iritzi artikulak eta itzulpengintza landuz, euskal literatura promozionatzen eta zabaltzen egin duen lan guztiatik Lauaxeta 2007 saria eman diote Miren Agur Meaberi. Atzo, Euskararen Nazioarteko Egunean, jaso zuen saria Bilbon Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusurak eta Belen Greaves Bizkaiko Kultura diputatuaren eskutik. Meabek ez zuen aiderazpenik egin; horren ordez, ipuin bat irakurri zuen saria jaso ondoren.

Bilbaoren esanetan, lehena, oraina eta etorkizuna uztartzen jakin du Meabek: «Gainera, euskal kultura beste kultura batzuekin batu du». Bilbaok gaineratu duenez, euskal populak ez duela mugarik erakutsi du Meabek: «Gizarteko errealtate aldakorrenak eta emakumeek egunetik egunera duten eragin handiagoaren erakusle da Meabe».

Euskal filologian lizentziatua, irakaslea eta Giltza argitaletxeke zuzendaria da Miren Agur Meabe, baita euskaltzain urgazlea ere. Aurtengo Haur eta Gazte Literaturako Euskadi saria irabazi du *Urtebete itsasargian* obrarekin. 13 urteko haur baten begietatik 36ko gerra kontatzen du liburuan.

Gaur banatuko dituzte Euskadi Literatura sariak, Lehendakaritzan

ERREDAKZIOA
Gasteiz

Gaur, 19:00etan, Lehendakaritzaren egoitzan (Gasteiz) egingo da Euskadi Literatura sarien banaketa ekitaldia. Euskarazko Euskadi Literatura sariaren irabazlea Xabier Montoia da *Euskal hiria sutan* lanarengatik (Elkar), baina ez da joango saria jasotzera. Haur eta gazte literaturako saria Miren Agur Meabek jasoko du, *Urtebete itsasargian* liburuarengatik (Elkar), eta itzulpengintzako saria Fernando Reyk, Antonio Tabucchiaren *Pereira dioenez* euskaratzeagatik (Igela). Gaztelaniako Euskadi Literatura saria, berriz, Juan Basko jaso du *Voracidad* lanarengatik (Ediciones B).